

HIRI ORDENAZIOKO PLAN OROKORREKO ARAUA: ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN ETA JOLASEZKO JARDUEREN KOKALEKUAK ARAUTZEN DITUEN UDAL-ORDENANTZA

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2004/03/03/e0401769.htm>

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

I. TITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.Izaera eta helburuak.

Hirigintzako udal-ordenantza honen helburua da establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren instalazioa mugatzea, lokal-mota horien artean gutxienezko distantziak ezarri, era horrela jarduera horiek sortzen dituzten zenbait ondorio gehigarri ekiditeko eta, hala, auzokoak ez molestatzeko.

Ordenantza honen antolaketari dagokionez, alde batetik, erregimen orokor bat ezartzen da eta, bestetik, hiru erregimen berezi: Zona beteena, itsasertzeko zona eta erabilera osagarriena.

1 bis artikulua.Edariak lokaletatik kanpo edatea.

1.Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuko 10. artikuluekin bat, eta Udala honek bere ordenantzetan sar litzakeen goragoko mugakizunak zein terrazetarako eta antzekoetarako emandako lizentzietan jarritakoak ahaztu gabe, debekatuta dago edariak lokaletatik kanpo kontsumitzea 22:00etatik aurrera, aipatu dekretuko 7. artikuluan xedatutakoa salbuespen dela.

2.Hartarako, eta erabiltzaile edo kontsumitzaileek izan dezaketen erantzukizuna gorabehera, aipatu ordu horretatik aurrera lokaletako arduradunek bezeroei galaraziko diete edariak kanpora eramatea, hala egin ezean, azaroaren 10eko establezimendu publikoen eta jolas jardueren 4/1995 Legeko 33. eta 34. artikuluek haustearren, zigorra jaso lezakete.

2. artikulua.Ezarrera eremua.

Ordenantza honek eragina du Donostiako udalerriko hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri osoan, Ordenantza honetako IV. eta V. tituluek jasotako salbuespenak zainduta.

3. artikulua.Jarduera arautuak.

1. Honako ordenantza hau bete beharrean egongo dira ondoko establezimendu publikoak:

—1. taldea:

Alkoholik gabeko edariak eta janariak saltzeko baimendutako lokalak, errestaurazio jarduerarik gabeak.

Mota guztietako janariak, ogitartekoak edo janari kuzinatutakoak saltzen dituzten merkataritza establezimenduak, salmenta automatikoa barne, salbuespen izango direla martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuan xedatutakoaren arabera, otsailaren 27ko 3/1998 Erkidegoko Legeko 56. artikuluek araututako jarduera lizentziarik lortu behar ez dutenak.

Merkataritza edo zerbitzu establezimenduak, funtzionamenduaren arabera, talde honetako lokalen parekotzat jo badaitezke eta mendekotasun ondorioz sor badezakete.

—2. taldea:

Edari alkooldunak saltzeko baimendutako lokalak, musika ekiporik erabiltzeko baimen berezirik gabekoak.

Errestaurazio jarduerak, modu autonomo edo independentean erabil daitezkeen barrarik edukita ala gabe, sagardotegiak barne.

Publikoarentzako barra daukaten gastronomi, kultur edo aisialdi elkarteak. Salbuespen dira, beraz, bazkideek baino erabil ezin erabil ditzaketen lokaletakoak, hau da, bazkideak baino sartu ezin direnetakoak, publikoari inondik inora edaririk saltzerik ez dutela.

Joko jarduerak, edariak edo janariak saltzeko barra zerbitzurik edukita zein gabe.

—3. taldea:

Musika ekipoa erabiltzeko baimena duten lokalak, dantza pistarik edo zuzeneko ekitaldirik gabekoak.

Musika ekipoak erabiltzeko baimen berezitzat jotzen da zaratek eta bibrazioek eragindako eragozpenak prebenitzeko indarreko arauak xedaturiko baldintza teknikoak betetzen dituzten ostalaritzako establezimenduei ematen zaiena, baldin eta, gainera, honako ordenantza honetan xedaturiko tarte irizpideak betetzen badituzte. Ekipo estereofonikoak erabiltzeko baimen horrek jarduera lizentzian jasota egon beharko du, arau honetako lehen Xedapen iragankorrean xedaturikoa ere kontuan.

—4. taldea:

Ordenantza honetako aurreko erredakzioak 3. taldekotzat izendatzen zituen lokalak, hau da, musika ekipoak erabiltzeko baimena izanda, dantza pista edo zuzeneko ekitaldietarako agertokia prestatuta daukatenak.

2. Establezimendu bakarrean talde desberdinetako bi jarduera edo gehiago gauzatzen bada, talderik murriztaileenari dagokion distantzia aplikatuko da, 4. artikulua hala xedatzen duenez gero.

4. artikulua. *Gutxieneko **tarteak eta lur zati motak**.*

Lizentzia eskatzerakoan bete beharreko gutxienezko tarteak datozen ataletan daude zehazturik:

4.1. Araubide orokorra:

4.1.1. Lehen eta 2 taldeen barruan sartzen diren establezimenduentzat ez da inolako tarterik eskatuko, ez horien artean eta ez goragoko taldeetako artean ere.

4.1.2. Hirugarren taldeko establezimenduek 1. eta 2. taldeen barruan sartzen diren establezimenduetara 50 m-ko tarte gordeko dute, eta 3. eta 4. taldekoetara, berriz, 200 m-ko tarte.

4.1.3. Laugarren taldeko establezimenduek 1. eta 2. taldeen barruan sartzen diren establezimenduetara 50 m-ko tarte gordeko dute; 3. taldekoetara 200 m-ko tarte, eta 4. taldekoetara 300 m-ko tarte.

	1. taldea / Grupo 1	2. taldea / Grupo 2	3. taldea / Grupo 3	4. taldea / Grupo 4
1. taldea / Grupo 1	-	-	-	-
2. taldea / Grupo 2	-	-	-	-
3. taldea / Grupo 3	50 m	50 m	200 m	200 m
4. taldea / Grupo 4	50 m	50 m	200 m	300 m

4.1.4. Laugarren taldeari dagozkion jarduerak ezingo dira etxebizitzetarako eraikinen barruan kokatu.

* 2009-01-30 Udalbatzako akordioaren bidez, 4. artikulua izendapena eta 4.1. artikulua edukia aldatzen da, lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/06/05/e0907010.htm>

4.2. Alde beteetarako araubide berezia:

4.2.1.1. eta 2. taldeetako establezimenduen artean eta goragoko taldekoen artean, eta alderantziz, 50 metroko tarte eskatuko da.

4.2.2.3. taldeko establezimenduen artean 200 metroko tartea eskatuko da. 3. eta 4. taldeetako artean, eta alderantziz, ere izango da 200 metroko tartea.

4.1.3.4. taldeko lokalen artean 300 metroko tartea egongo da.

	1. TALDEA / GRUPO 1	2. TALDEA / GRUPO 2	3. TALDEA / GRUPO 3	4. TALDEA / GRUPO 4
1. TALDEA / GRUPO 1	50 m	50 m	50 m	50 m
2. TALDEA / GRUPO 2	50 m	50 m	50 m	50 m
3. TALDEA / GRUPO 3	50 m	50 m	200 m	200 m
4. TALDEA / GRUPO 4	50 m	50 m	200 m	300 m

5. artikulua. Distantziak eta neurketak.

5.1. Distantziak biderik motzenetik neurtuko dira.

5.2. Instalatu behar den establezimendu baten eta hortik gertuen dagoenaren arteko distantzia jakiteko, linea bat hartuko da, eta linea horren hasiera egongo da jadanik baimendutako jardueraren lokalaren fatxadako puntu limitean (baimena eskatzen duen lokalarekiko gertuen geratzen den fatxadako puntu-limitean) eta amaiera, berriz, instalatu behar den lokalaren fatxadako puntu-limitean (jadanik instalatua dagoen lokalarekiko gertuen geratzen den fatxadako puntu-limitean).

Neurketak egiteko, hauek hartuko dira establezimendu bateko fatxadako puntu limitetzat:

1. Lokalaren perimetroaren eta eraikinaren fatxadaren elkargunean dauden puntuak.

Adibideak:



Neurtzen hasteko puntuak.

2. Lokalaren perimetroaren eta eraikinaren fatxadaren elkarguneen arteko puntuak.

Adibideak:



5.3. Ordenantza honetan, bideak izango dira kaleak, galtzadak, plazak eta errepideak, jabetza publiko iraunkorrekoak badira ere, eta horiek ezean, oinezkoak ibiltzen diren jabetza edo erabilera publikoko lursailak.

Fatxada izango da fatxada bakar bat osatzen duten lokaleko edo lokaletako kanpo-parametro guztiak, horien artean etenik ez dagoenean.

5.4. Lokala fatxadan proiektatuko da edozein dela ere bere egoera eraikineko solairuetan.

KASU OROKORRAK

1. Lokalak fatxada-lerro berean edo eraikin bakartua dagoen zona berean.

Hiru kasu hauetakoren batean, distantziak neurtuko dira fatxadaren lerroari edo horren segidakoari jarraituz, ezarritako irizpide orokorren arabera.

Adibideak:

A) Fatxada berean:



B) Etxe-uharte berean:



Baldin eta $L \neq L$, bien arteko txikiena hartuko da.

C) Eraikin bakartuan:



Baldin eta $L \neq L$, bien arteko txikiena hartuko da.

2. Kale berean eta fatxada-lerro desberdinean.

Kasu honetan, hartuko den distantzia linea hau izango da: Definitutako abiapuntutik hasi perpendikularki kalearen ardatzera joan, hortik ardatz horren eta amaiera-puntuarekiko perpendikularren arteko elkargunetik jarraitu eta elkargune horretatik definitutako amaieraraino.



3. Kale desberdinean eta fatxada-lerro desberdinean.

Kasu honetan jarraitu beharreko irizpidea hurrengo kasukoaren antzekoa da: Aldameneko kaleetako ardatzei jarraitzea, biderik motzenetik.



4. Plazak zeharkatuz.

Bideak plaza bat zeharkatu behar duenean, plazaren ardatzei eta perpendikularrei edo erradioei jarraituko zaie, horiek nolakoak diren (angeluzuzenak, karratuak edo zirkularrak). Horien trazatuak beste irudi lau batzuk badira, tangenteekiko perpendikularrak hartuko dira hasiera- eta amaiera-puntuetan.



5. Alakak daudenean.

Etxe-uharteetako kantoietan alakak daudenean, eskema honetako irizpideak jarraituko dira:



6. *artikulua. Eskabideen lehentasuna.*

Lokal batentzako lizentzia eskatu eta, distantzia dela eta, aurretik eskatzaileraren batek eskatutakoarekin bateragarria ez bada, gaitzetsi egingo da eskabide hura, eta bestarekin (aurreko eskabidearekin) jarraituko da.

Sailkatutako establezimenduetako bat instalatzeko kontsultari baieztokoak emateak ez du esan nahi eskaera egin duenak, automatikoki, jarduera instalatzeko eskubide atzeraezina duenik, baldin eta kontsultari erantzuten zaionetik lizentzia eskatzen den arte aurreko paragrafoko egoera gertatzen bada. Nolanahi ere, lizentzia eskatzen deneko egunak balioko du.

7. *artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Bai irekitzeko lizentzia eskatzerakoan, bai jarduera bat instalatzeko kontsulta egiterakoan, eta dagokion inprimakian ipini beharreko datuak alde batera utzita, aurkeztu beharko dira:

a) 1:1000 eskalako planoak, non zehatz-mehatz azalduko diren lokalaren kokalekua eta lokala dauden beste lokalekiko dagoen egoera.

b) Idatzizko aitormena, esanez lizentzia eskatzen deneko jarduera zein multzotan dagoen.

8. *artikulua. Lizentzien iraungitzea.*

Jarduerak irekitzeko edo instalatzeko lizentziak iraungitzat har daitezke, obrak egiteko lizentzia eman eta sei hilabete igaro badira obrak hasi gabe edo, hasiak egonda ere, sei hilabete baino gehiagoz etenda egon badira, nola eta alkateak ematen ez duen obren lizentziaren luzapena, horrela eskatuta.

Lizentzia iraungiko da obren lizentzia eman eta hamabi hilabeteren buruan obrak amaitu gabe baldin badaude.

Ordenantza honetako jarduerak irekitzeko eta funtzionamenduan jartzeko lizentziak iraungitzat hartuko dira, jarduerak bertan behera utzi zirenetik sei hilabete igaro badira.

II. TITULUA

ERREGIMEN OROKORRA

9. *artikulua. Aplikazio-eremua.*

Erregimen orokorra aplikatuko da ordenantza honetako 2. artikuluan aipatzen diren Donostiako zonetan eta erregimen berezirik aurrekusi ez zaien zonetan, ordenantzako III, IV eta V tituluetan esaten den legez.

10. *artikulua. Jarduera arautuak.*

Tarteak neurtu beharraren mendean egongo da ordenantza honetako hirugarren artikuluan xedaturiko 3 eta 4. taldearen, denak barne direla, arteko jarduera mota guztiak zabalitzea, aldatzea edo handitzea.

11. *artikulua. Jardueraz aldatzea.*

II. titulu honek aipaturiko jarduera guztiak, lizentziaz instalatuak, talde bereko edo beheragoko bateko beste jarduera batera alda daitezke. Halere, aldaketa eskabidea goragoko talderen baterakoa izanez gero, baimena emango da talde horretarako 4. artikulua xedatzen dituen tartea betetzen badira.

12. artikulua. Handitzeak eta banantzeak.

1. Ordenantza honetako edozein establezimendu handitu daiteke, baldintza hauek betetzen badira:

a) Multzo bakoitzerako ezarritako distantziak ez dira gaindituko, lehen azaldutako neurketa-irizpideen arabera.

b) Aurreko jardueraren eta handitutako jardueraren artean komunikazio etengabea egongo da, etorkizunean titularitate bat baino gehiago egon ez dadin.

c) Handitutako zatia ez da modu autonomoan edo independentean funtzionatzeko moduan geratuko.

d) Handitzean ez da establezimenduari dagokion multzoa aldatuko, eta aldatzen bada, berriz, multzo berriko distantziak errespetatu beharko dira.

2. Ordenantza hau, bere lehen bertsioan, indarrean sartu aurretik irekitzeko eta funtzionamenduan jartzeko lizentzia duten lokalek distantziak errespetatzen ez badituzte, lokal horiek handitu daitezke hasierako lokalaren azalera gehitzen ez den bitartean.

Gainera, aurreko puntuko b, c eta d ataletako baldintzak bete beharko dituzte.

3. Handitzeko eskabide guztiekin batera indarrean dauden xedapenetan eskatzen den dokumentazio teknikoa eta administratiboa aurkeztu beharko da.

4. Ezingo da inoiz ordenantza honetako jarduerak banandu edo horietatik atalak edo sailak sortu, eta horiek ere ordenantza honetan sartu.

III. TITULUA

ZONA BETEEN ERREGIMEN BEREZIA

13. artikulua. Aplikazio-eremua.

Titulu honetako erregimen berezia zona beteak gisa sailkatutako eremuei aplikatuko zaie.

14. artikulua. Zona betearen kalifikazioa.

1. Zona betetzat joko da bizitegi alde bat baldin eta inguru horretako establezimendu publikoek eta jarduera sailkatuek 160 biztanleko 1 ratioa gainditzen badute eta, gainera, lokal horien ondorio metatuek sortzen dituzten eragozpenen garrantzia zuzentze neurri arruntez konpontzerik ez badago.

2. Zona betearen adierazpena emateko, aipatu xedapen gehigarrian xedatutakoa salbu, udal ordenantza urbanistikoak onartzeko prozedura izapidetu aurretik. Espedientea bere kabuz, Zerbitzu Tekniko Munitzipalen proposamenez edota interesdunak hala eskatuta hasiko da. Deklarazio horren egokitasuna zuri ahal izateko txosten tekniko eta juridikoak beharrezkoak izango dira prozedura horretan, honako alderdi hauek aztertuta: Zona horretan dauden jarduera kopuru eta mota, kutsadura akustikoaren ezaugarriak bai eta egoera bereziak hala kokapena nola prozedura horretan esparru publikoen taxutze fisikoa.

15. artikulua. Jarduera arautuak.

Ordenantza honetako hirugarren artikuluko 1-4 (biak barne) multzoetako jarduerak irekitzeko, aldatzeko eta handitzeko errespetatu behar diren distantziak gorde beharko dituzte.

16. artikulua. Jarduera-aldaketak.

1. Lizentzia bidez instalatutako jarduerak multzo txikiagoko beste jarduera batera alda daitezke. Inoiz ez da baimenduko multzo handiagoko batera aldatzea.

2. Zona beteetan ezingo dira instalatu irratiak, telebistak eta hari musikalak ez diren musika-ekipoak, ekipo horiek erabiltzeko baimenik ez duten lokaletan, nahiz eta establezimenduaren izena ez aldatu.

3. Bigarren multzoko establezimenduetan, jarduera-aldaketa onartzeko baldintza izango da taberna-jarduerarako baimena edukitzea eta taberna-jatetxearen edo soilik jatetxearen jarduera jarri nahi izatea.

Jatetxearen jarduera bertan behera uztea ekarriko duen aldaketarik ez da baimenduko.

* 2009-01-30 Udalbatzako akordioaren bidez, 16.3. artikulua aldatzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/06/05/e0907010.htm>

17. artikulua. Handitzea eta banatzea.

1. Jarduera arautuetarako lokaletan handipenak egiteko baimena emango da, gutxieneko distantzien arau horri lotu beharrik izan gabe, honako kasu hauetan:

a) Erabilera publikorako 18 m²-ko gutxieneko azalera ez duten lokalak direnean; halakoetan, erabilera publikorako azalera hori handitzeko baimena emango zaie 18 m²-tara iritsi arte. Kasu horretan, lokalaren zerbitzuetarako diren eremuak (hala nola, sukaldeak, biltegiak edo komunak) nahikoak eta handitzearen ondorioz sortutako erabilera publikoko azalera berriarentzat egokiak izan daitezela bermatu beharko da.

b) Jatetxearen edo taberna-jatetxearen jarduera duten establezimenduak direnean; halakoetan, jantokirako xedatutako eremua behin bakarrik handitu ahal izango da, baldin eta handipen horrek publikoarentzat xedatutako azalera erabilgarriaren %50 gainditzen ez badu eta handipenaren ondorioz sortuko den zerbitzua eskaintzeko nahiko zerbitzu osagarri badute (sukaldea, biltegia, komunak).

2. Kasu guztietan, handitu beharreko azalera horrek jarduera burutuko den lokalarekin komunikatuta egon behar du etengabe eta ibilerraztasunaren araudia eta handipena egiten den unean indarrean dauden lokalaren gainerako baldintzak bete.

3. Ez da lokal-banantzerik baimenduko, baldin eta establezimendu horretan azpi-zatiketak egiteko bide ematen badute arau hori bete behar duten jardueretarako.

* 2009-01-30 Udalbatzako akordioaren bidez, 17. artikulua aldatzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/06/05/e0907010.htm>

IV. TITULUA

ERABILERA OSAGARRI GISA KALIFIKATUTAKO ORDENANTZA HONETAKO JARDUEREI BURUZKO ERREGIMEN BEREZIA

18. artikulua. Ezarrera eremua.

Titulu honek araututako araubide berezia Ordenantza honetan sartutako jarduera guztiei ezarriko zaie baldin eta jarduera nagusiaren erabilera laguntzaile osagarriak badira. Honako kasu hauek bereizten dira: Ekipamendu komunitario edo tertziarioko eraikin askotarikoetan ezarriko direnak, ostalaritza eraikin tertziarioetan sartzen direnak eta erabilera tertziarioko bestelako eraikin edo lokaletan instalatzen direnak.

Titulu honetako artikuluen arabera erabilera lagungarritzat jotako establezimenduei ez zaizkie ezarriko ordenantza honetako 4. artikuluko tarteak.

19. artikulua. Tertziarioko eraikin askotarikoetako edo ekipamendu komunitarioetako jarduerak.

Hirugarren sektoreko edo ekipamendu komunitarioko eraikin konplexu baten erabilera osagarri modura establezimendu bat antolatzeke, ezinbestean beharrezkoa izango da eraikin horretan bertan kokatzea eta jarduera hori erabilera nagusiaren barruan funtzionalki txertatzea.

Jarduera anizkoitzak kokatzeko diren eraikinak edo lokalak, baldin eta horien helburu nagusia hirugarren sektorekoa edo ekipamendu komunitariokoa bada, erabilera nagusitzat joko dira.

Erabilera osagarritzat jotzen da hirugarren sektoreko edo ekipamendu komunitarioko erabilera nagusiaren osagarri diren zerbitzu edo jarduerak finkatzea.

Eginkizunak bateratzeko ezinbestekoa da, gutxienez, honako baldintzak betetzea:

a) Erabilera osagarrien eta erabilera nagusiaren arteko komunikaziorako eremuak.

b) Erabilera osagarriaren sarbide publiko edo nagusia, eraikinaren barrualdetik, nahiz eta bigarren mailako sarbideak ere onartuko diren kanpoaldetik, baina soilik zerbitzu pribaturako.

c) Erabilera nagusiaren funtzionamendu-erregimena betetzea, eta bereziki, irekitzeko eta ixteko ordutegiari dagokionez.

d) Horrez gain, kokatu nahi den jarduera osagarria 4. taldekoa baldin bada -Ordenantza honetako 3. artikuluko definizioen arabera-, etxebizitza-erabilerako finka hurbilenaren hasiera eta hirugarren

sektoreko edo ekipamendu komunitarioko eraikin konplexuaren sarbide bakoitzaren artean gutxienez 10 metroko tartea gorde beharko da.

* 2009-01-30 Udalbatzako akordioaren bidez, 19. artikulua aldatzen da lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/06/05/e0907010.htm>

20. artikulua. Hotel erabilerako eraikin tertziarioetako jarduerak.

Hotel-erabilera duten hirugarren sektoreko eraikinek, lur-zati oso bat okupatzen badute, 1. taldeko edo 2. taldeko ostalaritza-jarduera osagarri bat eduki ahal izango dute, bide publikotik zuzeneko sarbidea duela, betiere 19. artikuluko a) apartatuan eskatutako baldintza betetzen badu.

Hotel-erabilera duten hirugarren sektoreko eraikinek, lur-zati oso bat okupatzen badute, 3. Taldeko ostalaritza-jarduera osagarri bat eduki ahal izango dute, betiere 19. artikuluko a) eta b) apartatueta eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Hotel-erabilera duten hirugarren sektoreko eraikinek, lur-zati oso bat okupatzen badute, 4. Taldeko ostalaritza-jarduera osagarri bat eduki ahal izango dute, betiere 19. artikuluko a), b) eta d) apartatueta eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

* 2009-01-30 Udalbatzako akordioaren bidez, 20. artikulua edukia aldatzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/06/05/e0907010.htm>

21. artikulua. Erabilera tertziarioko bestelako eraikin edo lokalak.

Erabilera tertziarioko beste eraikin edo lokaletan anbigu motako erabilera lagungarriak onar daitezke baldin eta hurrengo eskakizunak betetzen badituzte:

a) 19. artikuluko a), b) eta c) xedatutako betebeharrak izatea.

b) Jarduerak ordenantza hauetako 3. artikuluko 1. eta 2. taldeetakoak izatea.

c) Erabilerak, argiro, osagarri izatea, kanpoko komunikaziorik gabeak, era autonomoan funtzionatzeko modurik inondik inora ez izatea.

22. artikulua. Jarduera erabilera lagungarritzat sailkatzea.

1. Tartearen araubidetik salbuetsit egoteko, jarduera, lehenago, erabilera lagungarritzat jo beharko da.

2. Kalifikazioa Udalak bere kabuz emango du eta interesatuak eskatuta.

3. Ordenantza hau indarrean sartu aurretik 10. artikulua arabera eraikin edo lokal askotarikotzat jotakoei dagokienez, jarduerari erabilera lagungarria aitortzeko ebazpenak zehaztu beharko du nolako baldintza zehatzak bete beharko dituen erabilera hori erabilera nagusiari egoki txertatzeko, baita bermatzeko ere ez dela gertatuko ordenantza honek galarazi nahi duen metaketa efekturik.

4. Ordenantza hau indarrean sartu ondoren 19. artikuluko eraikin edo lokalek ordenantza honek araututako erabilera lagungarriak eduki nahi baditu, hartarako eskabidea gauzatu beharko dute eraikina edo lokal proiektatzeko unean edo erabilera aldatzerakoan, nolako establezimendu motak ezarri nahi diren xehero azalduta. Ebazpenak berariaz zehaztuko ditu eraikinek eta lokalek bete beharreko baldintzak eta, batez ere, eraikin edo lokal nagusia zein erabilera osagarriak zabaltzeko eta ixteko orduak.

23. artikulua. Handitzea, zatitzea edo jardueraz aldatzea.

Horrelako jarduerak handitu, zatitu edo jardueraz aldatzerakoan bete beharko dira araubide orokorrak halakoez xedatutakoa, titulu honek adierazitako mugakizunak ere kontuan izanda.

V. TITULUA

ITSASBAZTERREKO ZONEN ARAUBIDE BEREZIA

24. artikulua. Ezarrera eremua.

Titulu honek araututako araubide berezia ordenantza honetako jardueri aplikatuko zaie itsasbazterreko jabariaren lehorreko aldean eta zorpetze aldean, hiria antolatzeke Plan orokorrak xedatutako muga arabera (5. planoa. Itsasertzaren Legea nola aplikatu).

25. artikulua. Tartearen araubidea bete beharra.

Aurreko artikuluan adierazitako zonetan ez dira ordenantza honetako I. tituluan xedatutako tarte irizpideak aplikatuko arau honetako 3. artikuluko lau taldeetan zerrendaturiko establezimenduak ezartzeko bizitegi erabilerarik ez duen eraikin isolatua izanez gero, baldin eta bizitegi eraikinen lerroakadura definituriko biltzailetik kanpo badaude.

Alde horietako jarduerak ez dira kontuan izango tartearen gaineko xedapenak betetzeko eskatzeko orduan, eraikinaren inguruan arau honek eragindako jarduera berriak kokatu nahi izanez gero.

26. artikulua. Jarduera handitzea, zatitzea eta aldatzea.

Zona horietako establezimenduren batek jarduera handitu, zatitu edo aldatu nahi badu, ordenantza honek halako gertaeretakoa xedatutakoa aplikatuko da.

Lehen xedapen gehigarria.

Alde betetzat, hau da, ordenantza honetako 3. Tituluak xedaturiko araubidearen mende kotzat joko dira honako hauek:

Alde Zaharra eta Ekialdeko Zabalgunea, eta azken honen barruan sartuko da Kaiak (hau ere barne), Mari eta Ijentea kaleak, Bulebarreko zenbaki bikoitiek, Erregina Errejentea kaleak, Salamanca pasealekuak (biak barne) eta Urgull mendiak hartzen duten inguru osoa.

San Bartolome kalea eta ondokoak, muga izanda San Bartolome kalea bera (izen bereko kalea bera ere). Triunfo kalea (4, 6, 8 atariak) eta San Martin kaleko zenbaki bakoitiak, 43tik 61a arte.

Errege-erregina Katolikoen kalea eta ondokoak, mugak izanda Sanchez Toca kalea, Hondarribia kalea (48a eta 50a), Prim kalea (26, 28, 30 eta 32), Moraza kalea (2, 4 eta 56) eta Urbietako kalea (bakoitiak, 37tik 53a arte).

* 2009-01-30 Udalbatzako akordioaren bidez, Lehen xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoa aldatzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/06/05/e0907010.htm>

Bigarren xedapen gehigarria.

Zarataren ondoriozko kalteak murrizteko leiho bikoitzak ezartzeko dirulaguntza jaso dezakete tartearen ordenantzak zona betetzat izendatutako aldeetako etxebizitza guztiek, 2003.eko uztailaren 28ko pleno erabakiko erredakzioaren arabera, 2003.eko irailaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu bezala.

Lehen xedapen iragankorra.

Establezimendu publikoen eta jolas jarduerak non kokatu arautzeko Ordenantzaren lehen erredakzioa (hau da, 1989.eko urriaren 11n Udalbatzak onartua) indarrean jarri aurretik lege baimenduriko lokalak, honako arau erredakzioaren arabera 3. taldeko lokal moduan zabaldukoak, 3. taldeko lokal bete-betekoak izan daitezke (arau honen sailkapen berriaren arabera), musika ekipoa erabiltzeko baimen berezia eskuratuz gero, eta baimena emango diete baldin eta zuzenbidean onartu ohi den ezen frogabideren bitartez egiaztatzen badute goragoko taldeko establezimendu moduan funtzionatu dutela araua indarrean jarri aurretik eta lokalak betetzen dituela auzokideak zaratetatik eta bibrazioetatik babesteko indarreko arauak.

Ordenantzaren lehenengo erredakzioaren aurretik funtzionamendua egiaztatutako establezimenduek instalazioak egokitu ez badituzte, aurreko pasartea aipatutako baimen berezia eskatu behako dute, obra eta jardura lizentzia 3/1998 euskal Legearen arabera izapidetu ostean, ordenantza hau, 2003ko uztailaren 28an behin betiko erredakzioa onartuta, indarrean jarri denetik (2003ko irailaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua) bi hilabeteko epe preklusiboan, proiektu teknikoa ere, lokala indarreko araudiak 4. taldeko jardueretarako xedaturiko eskakizun teknikoak eta zuzentze neurriak betetzeko egokitzea.

Udalaren obra eta jardura lizentzia eskuratutakoan, lokala egokitzeko lanei ekin beharko diote udal ebazpena jaso eta hilabeteko epean. Lokala egokitzeko lanak amaitzeko epea arauzko obra lizentziak xedatutako du, eta oro har, hiru hilabetekoa izango da. Lanek Udalak onartutako proiektua eta adierazitako

epeak bete dituela egiaztatutakoan, musika ekipoka erabiltzeko baimen berezia emango da.

Lokalak baimen berezia lortzen ez badu, edo lanei ekiten ez badie, edo lanok izendatzen dioten epean amaitzen ez baditu, edo adierazitako izapideari ekin ere ez badio, beheragoko taldean sailkaturik geratuko dira behin betiko.

Funtzionamendu ohikotzat joko da zabalik egonda, udalaren jarduera lizentziaren jabe ziren lokalena.

Bigarren xedapen iragankorra.

Ordenantza honen 1989.eko idazketa indarrean sartutakoan musika ekipoak jartzeko baimena eskuratu zuten lokalek zabaltzeko eta ixteko orduak egokitu beharko dituzte lizentziako izendapenari dagokion jarduera motarako indarrean dagoen araudi autonomikora ordenantza hau indarrean sartu eta lau hilabeteko epean. Epe hori hasiko da kontatzen Ordenantza hau indarrean jarri denetik Udalbatzak 2003ko uztailaren 28an onartutako erredakzioan (2003ko irailaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).